



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

ARABAKO KALKULUGUNEA SA SOZIETATEAREN ZERBITZURA EGONGO DEN EUSKARRI MIKROINFORMATIKOKO TEKNIKARI LANPOSTU BAT BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

(deialdiaren kodea: 2025001)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

Erosketen eta Erabiltzaileentzako Arretaren eta Ekipamenduaren Atalean sartuko da, proiektuburuaren eta, aldi berean, ataleko arduradunaren mende.

Teknikariak Arabako Batzar Nagusietan (BN) egingo ditu lanak, baita Arabako Kalkulugunean (AKSA) ere, Foru Aldundiarentzat (AFA) eta antzeko gainerako erakundeentzat.

Batzar Nagusietan eginkizun hauek izango ditu:

1. Informatika ekipoak konpontzea.
2. Osagaiak instalatzea.
3. Inprimagailuak konpontzea.
4. Ekipoak konfiguratzea (hardwarea, softwarea...).
5. Informatika sistemen inbentarioa kudeatzea.
6. Lantaldeak kudeatzea.
7. Kontabilitateko eta nominako aplikazioak mantentzea, baita aplikazio espezifikoak ere.
8. SÉNECA irudi eta soinu aplikazioa administratzea/erabiltzea.
9. Irudia eta soinua editatzea.

AKGSAn (Foru Aldundiarentzat eta antzeko gainerako erakundeentzat), eginkizun hauek izango ditu:



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

1. Mikroinformatikarekin lotutako **gorabeherei eta eskaerei** (esku hartzeak) irtenbidea ematea, lanpostuaren arloko ekipamendu informatikoan.
2. **SCCM (System Center Configuration Manager)** erabiltzea, lan hauek egiteko:
 - ✓ Produktu eta aplikazioetarako paketeak definitzea.
 - ✓ Ekipo multzoei paketeak banatzea.
 - ✓ Produktu eta aplikazioen paketeak definitzea.
 - ✓ Sistema eragilearen eguneraketak, adabakiak eta abar aplikatzea.
3. **Direktorio aktiboko (on premise eta Azure AD)** erabiltzaileak eta kontuak kudeatzea.
4. Sareko baliabideetarako **baimenak** kudeatzea.
5. **Postontziak** (pertsonalak eta generikoak) kudeatzea **Microsoft Exchange 2016/2019**an edo **Microsoft 365** ingurunean.
6. **Antibirusa** aktibatzea (**Trendmicro**) gailu mugikorretan (tabletak eta telefonoak).
7. **Sare harguneak** egiaztatzea, Fluke motako neurketa eta testatze tresnekin, eta komunikazio armairuetan harguneei adabakiak jartzea.
8. **Inbentarioa** eguneratzea.
9. **Laguntza teknikoa** ekitaldi berezietan.
10. **Gailu mugikorretarako** (tabletak eta telefonoak) aurrez aurreko arreta.
11. Prozedura eragileak **dokumentatzea**.
12. Azpikontrataturako zerbitzuen **irismenetik kanpoko jarduketak**, arloko arduradunaren iritziz teknikariak horretarako gaitasuna badu.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek posta elektronikoz bidali beharko dute 2025001@qualisconsultores.es helbidera oinarri orokorretako 3.1) puntuan eskatzen den dokumentazioa (bidalitako mezuak 30 MB baino gehiago hartzen baditu, mezu bat baino gehiago bidali beharko da, bakoitzean baimendutako gehienekoa gainditu gabe).

Eskaerak aurkezteko epea 2025eko otsailaren 28an amaituko da



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:

- Informatikako goi-mailako heziketa zikloak (lehengo goi-mailako LHak).
- Goi-mailako titulua (unibertsitateko informatika tituluak)
- Euskara: 2. HE (B2).

LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:

1. FASEA: EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK EBALUATZEA:

Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).

- Honako hauek administratzeko eta konfiguratzeko ezagutzak:
 - Mikroinformatika eta ekipoen hardwarearen mantentze lanak.
 - Sistema eragilea (bereziki Windows 10 Pro eta Windows 11 Pro).
 - Suite ofimatikoa (bereziki Microsoft Office 2019 eta Office 365).
 - Direktorio aktiboa (on premise eta Azure AD).
 - SCCM (System Center Configuration Manager), operadore mailan.
 - VPN
 - Sareen eta informatika segurtasunaren oinarrizko kontzeptuak.
- Derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna:
 - 2. HE: euskara

Zinpeko adierazpen bidez egiaztatu behar dira adierazitako jakintza espezifiko guztiak.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte izan beharko dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALIOESPENA (30 puntu, gehienez ere):

A) Bete beharreko eginkizunekin lotura duten titulazioak (10 puntu, gehienez ere):

• Titulazioak (geh. 6 puntu)

- Sareko informatika sistemen administrazioko goi-mailako teknikaria edo telekomunikazio eta informatika sistemetako goi-mailako teknikaria edo informatika sistemen administrazioko goi-mailako teknikaria: **6 puntu.**
- Lanbide Heziketako informatikako goi-mailako beste heziketa ziklo batzuk : **3 puntu.**
- Unibertsitateko informatika tituluak: **puntu 1.**

• Titulu bat baino gehiago aurkeztuz gero, titulazio kontzeptuagatik lortutako puntuen batura ez da inoiz 6 puntutik gorakoa izango.

Ziurtagiriak (geh. 4 puntu)

Honako hauetan ziurtatuta egotea balioetsiko da (https://learn.microsoft.com/es-es/credentials/browse/?credential_types=certification):

- Microsoft Office Specialist: Expert (Microsoft 365 Apps): **3 puntu.**
- Microsoft Office Specialist: Associate (Microsoft 365 Apps): **2 puntu.**
- Microsoft Office Specialist: Associate (Office 2019): **2 puntu.**
- Microsoft 365 Certified: Endpoint Administrator Associate: **2 puntu.**
- Microsoft 365 Certified: Modern Desktop Administrator Associate: **2 puntu.**
- MD-100 Windows bezeroa instalatzea: **puntu 1.**
- Microsoft Certified Technology Specialist (MCTS): **puntu 1.**
- Microsoft Certified Solutions Expert (MCSE): **puntu 1.**
- Microsoft Certified IT Professional (MCITP): Enterprise Desktop Administrator: **0,5 puntu.**
- Microsoft Certified Solutions Associate (MCSA): **0,5 puntu.**

Ziurtagiri bat baino gehiago aurkeztuz gero, ziurtagiri kontzeptuagatik lortutako puntuen batura ez da inoiz 4 puntutik gorakoa izango.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

B) Hizkuntzak (4 puntu):

B.1) Hizkuntza: euskara (geh. 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

B.2) Hizkuntza: ingelesa (geh. 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **puntu 1.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

C) Esperientzia (geh. 16 puntu):

Aurreko lanpostu bateko esperientzia egokitzat jotzeko, ezinbestekoa izango da lanpostu horretan gutxienez lanaldi erdiko dedikazioarekin honako eginkizun nagusi hau bete izana:

- **F1** Mikroinformatikako gorabehera eta eskaerei (aldaketa eskaerak) irtenbidea aurkitzea, lanpostuko ekipamendu informatikoaren arloan (mahai gainekoak, eramangarriak, tabletak, mugikorrak, inprimagailuak —lanpostukoak, sarekoak eta funtzio anitzekoak, etab.—), bai aurrez aurre, bai urrutiko kontroleko tresnaren bidez. Esku hartze horiek hardwarearen (ekipoak konpontzea, osagaiak ordeztzea, etab.) zein softwarearen (ekipoak eta aplikazioak konfiguratzea —garapen propioak edo hirugarrenenak—) gainekoak izan daitezke.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Horrez gain, honako eginkizun osagarri hauek balioetsiko dira:

- **F2** Direktorio Aktiboa administratzea eta erabiltzea (on premise edota Azure AD): erabiltzaileen eta kontuen kudeaketa, sare unitateetarako NTFS baimenak, postontziak (Microsoft Exchange 2016/2019 edo Microsoft 365 ingurunea), etab.
- **F3** System Center Configuration Manager-en (SCCM) operadore gisa lan egitea paketeak definituz, banatuz eta eguneratuz.
- **F4** Tiketing aplikazioak (adibidez: REMEDY, EasyVista, Zendesk, Salesforce, etab.), inbentarioa eta ezagutzen datu basea (BDC) erabiltzea.
- **F5** Laguntza teknikoa ematea bideokonferentzia eta ekitaldietan (hitzaldiak, prentsaurrekoak, prestakuntzak, osoko bilkurak, etab.).
- **F6** Postuko maketak eta pilotuak sortzea.
- **F7** Sare harguneak egiaztatzea, Fluke motako neurketa eta testatze tresnekin, eta komunikazio armairuetan harguneei adabakiak jartzea.

CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratuaren bidez egiaztatuko da.

Bi urtetik gorako esperientzia azken lau urteetan, aurreko apartatuan (2. fasea: C apartatua) zehaztutako eginkizunak bete dituen lanpostuetan.	<ul style="list-style-type: none">- Oso egoki betetzen du: 16 puntu.- Nahiko egoki betetzen du: 12 puntu.- Egoki betetzen du: 8 puntu.- Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4 puntu.- Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alor dezente dauzka: 0 puntu.
---	---

Urtebete baino gehiagoko esperientzia azken lau urteetan, aurreko apartatuan (2. fasea: C apartatua) zehaztutako eginkizunak bete dituen lanpostuetan, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	<ul style="list-style-type: none">- Oso egoki betetzen du: 16 puntu.- Nahiko egoki betetzen du: 12 puntu.- Egoki betetzen du: 8 puntu.- Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4 puntu.- Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alor dezente dauzka: 0 puntu.
---	---



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Balioesteko:

Honela balioetsiko da:	Aurreko apartatuan (2. fasea: C atala) deskribatutako funtzioak modu frogagarrian islatzen direnean
Oso egoki betetzen du	F1 eta eginkizun osagarrien (F2tik F7ra) % 100 betetzen du
Nahiko egoki betetzen du	F1 eta eginkizun osagarrien (F2tik F7ra) \geq % 66 eta $<$ % 100 betetzen du
Egoki betetzen du	F1 eta eginkizun osagarrien (F2tik F7ra) % \geq % 33 eta $<$ % 66 betetzen du
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka	Ez du F1 betetzen eta eginkizun osagarrien (F2tik F7ra) \geq % 66 eta $<$ % 100 betetzen du
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka	Ez du F1 betetzen eta eginkizun osagarrien (F2tik F7ra) $<$ % 66 betetzen du

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte izan beharko dira.

Merezimenduen baremoetan, lanbide esperientziaren ondorioetarako, honako hauek balioetsiko dira: hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatiko eszedentzian egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babesteko edo erantzukizuna partekatuz norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko xedea duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotzi ahal zaien denbora, eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

3. FASEA: EZAGUTZA TEKNIKOEN PROBAK ETA LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEARI BURUZKO PROBA PSIKOMETRIKOAK

- **Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).**
- Probak egingo zaizkie 1. fasean gaitzat jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsoneri.
- Proba psikometrikoak:
 - Proba bat edo gehiago egingo dira izangaiak lanpostuaren profilera eta bete beharreko eginkizunetara egokitzen diren balioesteko.
 - Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat egingo du 4. faserako proposatutako hautagai bakoitzaren inguruan.
- Ezagutza teknikoaren proba:
 - Ariketaren xedea izango da ezarritako denboran galdetegi bati (aukera anitzeko erantzunak) idatziz erantzutea.
 - Ariketa hori zuzentzean, ondo erantzundakoen kopuruari errore kopuruaren herena kenduko zaio ($V = A - E/3^1$). Erantzun gabeko galderek ez dute zigorrik izango. Azken balioespen ehunenetan moztuko da.²
- Balioespena GAI izango da ezagutza teknikoaren proban 5 puntu edo gehiago lortu eta fase honetako proba psikometrikoetan gai izan direnentzat.
- Balioespena EZ GAI izango da ezagutza teknikoaren proban 5 puntu baino gutxiago lortu edota proba psikometrikoetan ez gai izan direnentzat.
- Gaitzat jotzen diren hautagaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Pertsonaren bat EZ GAI izanez gero edo 3. FASEan uko eginez gero, AKSAK probak egin ahal izango dizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsoneri, eta hurrengo fasera (4.era) pasatuko dira gaitzat jo eta lau puntuazio onenak dituztenak.

V= ariketen balioespena, A= ondo erantzundako galderak, E = gaizki erantzundako galderak.
Moztea da hamarrenak ezabatzea borobiltzerik gabe, hamarren jakin batetik aurrera. AKSAn kasuan, bigarren dezimala da hori. Esate baterako, 4,171 eta 4,179 moztuta, 4,17 geratzen dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

4. FASEA: GAITASUNEI ETA EZAGUTZA TEKNIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETA (gehienez, 20 puntu)

- ● **Nahitaezkoa da.**
- ● 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsoneri eta 3. fasean gaitzat jo direnei egingo zaie elkarrizketa pertsonala.
- ● Elkarrizketa hautaketa epaimahaiko kideek egingo dute AKSA sozietatearen egoitzan, eta lanpostuko gaitasun orokorrak, zeharkakoak eta teknikoak balioestea izango du helburu.
- ● Elkarrizketak bi zati izango ditu:
 - ● **Gaitasunak:** Honako gaitasun hauek balioetsiko dira: (gehienez, 10 puntu)
 - Lanpostua ezagutzea (geh. 2 puntu)
 - Talde lana (geh. 2 puntu)
 - Malgutasuna eta egokitzapena (geh. 2 puntu)
 - Erabiltzailearentzako orientazioa (geh. 2 puntu)
 - Laneko presioarekiko tolerantzia (geh. 2 puntu)

Fase honetako puntuazioa eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura izango da:

- Gaitasun maila baxua: 0 puntu
- Gaitasun maila ertaina: 1 puntu.
- Gaitasun maila altua: 2 puntu.
- ● **Ezagutza teknikoa:** Elkarrizketa honetan, ezagutza hauek balioetsiko dira: (geh. 10 puntu)
 - Mikroinformatika eta ekipoen hardwarearen mantentze lanak (geh. 2 puntu)
 - Sistema eragilea (bereziki Windows 10 Pro eta Windows 11 Pro) (geh. 1,5 puntu)
 - Suite ofimatikoa (bereziki Microsoft Office 2019 eta Office 365) (geh. 1,5 puntu)
 - Direktorio aktiboa (on premise eta Azure AD) (geh. 1,5 puntu)
 - SCCM (System Center Configuration Manager), operadore mailan (geh. 1,5 puntu)
 - VPN (geh. puntu 1)
 - Sareen eta informatika segurtasunaren oinarriko kontzeptuak (geh. puntu 1)





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketako epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Gutxienerako atalase hauek ezartzen dira:
 - Gaitasunen zatia: 5 puntu.
 - Zati teknikoa: 5 puntu.
- Lau hautagaietakoren bat aurreko puntuan eskatutako gutxienerako atalasetara iristen ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonak jarraituko dute.
- Fase hori amaitu ondoren gai diren pertsonak lau baino gutxiago badira, hautaketa epaimahaiak ahalmena izango du, egoeren arabera, gai den hurrengo hautagairako edo hautagaietara jotzeko.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
EZ GAI/GAI	30	EZ GAI/GAI	20	50